

2020-2021

ikasturteari hasiera emateko ekitaldia

Nekane Balluerka Lasa
UPV/EHUko errektorea

Lehendakari jauna; Eusko Legebiltzarreko presidentia andrea; Espainiako Gobernuaren ordezkari jauna; lehendakari ohi jauna; errektore jaunak; errektore ohi jaunak; Hezkuntza sailburu jauna; herri-agintariak; unibertsitateko klaustroko kideak; lagunak.

Ikasturte berria hastera doa Euskal Herriko Unibertsitatean. Gainera, agintaldi honen azken irekiera ekitaldia ere badenez, beharrezkoa ikusten dut orain arteko lanaren balantze labur bat egitea.

2019-2020 ikasturtearen bigarren erdialdetik, azken hamarkadetakoa esperientzia gogorrenetako bat bizitzen ari gara, ondorio ekonomiko eta sozial sakonak izan dituen: koronabirusaren pandemia. Hala eta guztiz ere, pandemia eta haren ondorengo konfinamendua gorabehera, ezin dugu ahaztu azken lau urteetan egindako lana, non Euskal Herriko Unibertsitateak, gure herrialdeko goi mailako hezkuntzaren eta ikerkuntzaren lidergoari eusteaz gainera, bere posizioa ere hobetu baitu nazioarteko unibertsitateen artean. Beraz, lan horren berri emango dut, agintaldiaren azken aldi honetan sortutako zailtasunez harago. Eta nire mintzaldia amaitzeko, etorkizunean gure unibertsitateari eman diogun norabideari buruzko gogoeta labur bat egingo dut.

2018-2021 aldirirako Plan Estrategikoa onartzearekin batera, tresna bat egokitu genuen, azken urte hauetako lana gidatzea ahalbidetu diguna.

Irakaskuntzaren arloan, ahalegin handi bat egin dugu gizarte globalizatu, dinamiko eta aldakor batera egokitzeko. Unibertsitatearen betebeharra, unean uneko behar akademikoei erantzutea ez ezik,

etorkizuneko beharrei aurre egitea ere bada, ahal duen neurrian. Horrek eskaintza akademiko eta hezkuntza eredu arinak eta malguak diseinatzea eskatzen du. Abiada bizian eboluzionatzen ari den gizarte globalizatu baten erronkei erantzuteko gai izango diren profesionalak prestatzea da gakoa.

Helburuetako bat gure eskaintza akademikoaren bikaintasuna areagotzea izan da. Areagotzea esan dut, horren zati handi bat bikaina zelako lehen ere; alabaina, ezingo nuke esan hobe daitezkeen arloak ez zeudenik edo ez daudenik.

Talde honek zuzendaritza hartu zuenean, UPV/EHUk bi master zituen Erasmus Mundus kalifikazioarekin. Ikasturte honetan horrelako zortzi master eskainiko ditugu. Nazioartekotzeari lotutako bikaintasunaren aldeko bokazioa euskal gizartearen oraingo eta etorkizuneko beharrei sektore profesional guztietan eman beharreko erantzunekin konbinatzen da.

Hori dela eta, titulu bikoitzak ere bultzatu ditugu; hala, 2016-2017 ikasturtean, horrelako bi ematen ziren, eta ikasturte honetan hamabi eskainiko ditugu. Aipatzekoa da, halaber, horien artean ingelesez osorik ematen den lehen titulu bikoitza dugula.

Prestakuntza duala bultzatu dugu; modalitate hori prestakuntza aukera aparta bat da, laneko jarduera eta formakuntza akademikoa uztartzen dituelako. Prozesu eta Produktuen Berrikuntzaren Ingeniaritzako gradua, gure unibertsitateari atxikitako Makina Erremintaren Institutuan ematen dena, aitzindaria izan zen estatuan modalitate horretan. Azken lau urteetan prestakuntza dualeko hamar titulu gehiago jarri ditugu martxan.

Irakaskuntzaren arloarekin jarraituta, lau titulu berri ezartzeaz gainera, bi zentro gehiago atxiki zaizkigu: Goi Mailako Online Institutua eta Elías Querejeta Zine Eskola.

Eskaintza hori osatzeko, zeharkako gaitasunen gaineko prestakuntza ikastaroen katalogo zabal bat dugu. Ikastaro horien bidez, hiru campusetan lehenengoz antolatutako enplegu azokekin batera, gure ikasleen enplegarritasuna hobetu nahi dugu. Alarma egoerak eragindako konfinamendua hasi baino pixka bat lehenago, UPV/EHUko

ikasleen okupazio tasa % 90ekoa zen, eta zenbait diziplinatan ia enplegu osora iristen zen.

Prestakuntza eskaintzak hobera egin du bikaintasunean, nazioartekotzean, dinamismoan eta gizarte beharrei erantzuteko gaitasunean. Hori guztia IKD i3 gure hezkuntza ereduaren aterpean, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ikerketa eta garapen jasangarrirako helburuak barneratzen dituena.

Ikerketa gure unibertsitate jarduerari —eta identitateari— eusten dion zutabe handietako bat da.

2019-2022 aldirirako Ikerketa Planaren esparruan, beste erakunde eta enpresa batzuen lankidetzaz diziplina anitzeko proiektu handiak sustatzeko deialdi berriak diseinatu ditugu. Belaunaldi aldaketaren alde egin dugu, ikertzaile gazteei laguntza emanez, baina talentua zaintzeaz eta erakartzeaz ahaztu gabe. Horretarako, lankidetzan ari gara Ikerbasquerekin eta inguruko bikaintasun ikerketa zentroekin (BERC gunek). Politika horrek emaitzak eman ditu: une honetan, UPV/EHUK ikerketari lotutako 55 milioi euro inguru eskuratzen ditu urtean. Modu zehatzagoan baina aldi berean esanguratsuagoan adierazita, Donostia International Physics Centerekin lankidetzan, gure historian lehenengoz Nobel saridun bat kontratatu dugu, Albert Fert fisikaria.

Bikaintasuna lortu nahi duen unibertsitate batean ezinbesteko helburua izan behar du nazioarteko proiektzioa duen lehen mailako ikerketa egiteak. Azken urteetan, Horizon2020 Europako Programan izan dugun parte hartzea 24 milioi inguruko itzulkinen bolumena izatera iritsi da. Horien artean, 17 milioi baino gehiago (emandako 84 proiektuetatik 63) plan horretan bertan ezarritako Bikaintasun Zutabeari dagozkio. Zutabe horren barruan daude, halaber, Ikerketako Europako Kontseiluaren (ERC) lau proiektu prestigiotsuak, azken lau urteetan lortu ditugunak: 3,13 milioi euroko itzulkina ekarri dute. H2020ren Gizarte Erronken Zutabearen programan lortutako igoera handia nabarmendu behar dugu: 2014-2016ko urtealdian proiektu bakarra genuen, eta azken lau urteetan 11 garatu dira. Bestalde, lidergo femeninoa bultzatzeko gure ahalegina emaitzak ematen ari da: Gizarte

Erronken Zutabe horretan bertan, proiektuen % 58 emakumeek lideratu dituzte.

Argitalpen zientifikoei dagokienez, azken lau urteetan % 34 igo da *Web of Sciencen* indexatutako artikuluen kopurua. Hala, 2019an, 3.800 argitalpenen kopurua gainditu genuen, eta horien % 55 lehen kuartilean kokatzen dira.

Eman ta Zabal Zazu leloarekiko leialtasunez, argitalpenak eskuratzeko sarbide irekiaren aldeko politika bat bultzatu dugu. Zehazki, 2017. urtearen hasieran genituen 7.169 artikuluetatik gaur egungo 19.497ra igaro gara; hala, UPV/EHUren gordailua 280. postuan kokatu da, munduko unibertsitateen artean. Elementu hori lagungarria izan zaigu ere 100 postu igotzeko eta munduko 400 unibertsitate onenen, hots, munduko %2 unibertsitate onenen artean kokatzeko, Shanghaiko sailkapen prestigiotsuaren arabera.

Ikerketari lotutako beste arlo bat jakintzaren transferentzia da, gure unibertsitateak etengabe lantzen duen arlo bat. Azken urteetan, % 50 igo dira ikerketa emaitzen transferentzia kontzeptupean sinatutako kontratuak eta lortutako sarrerak. Nabarmendu behar dugu 2019an 1.250 kontratu sinatu genituela 681 erakunderekin eta 11,55 milioi euroko itzulkina lortu genuela, I+G arloan eta zerbitzu teknologikoetan. Patenteen urteko ekoizpena bikoiztu egin da; unibertsitatean sortutako teknologiak ustiatzeko lizentzien bidezko transferentzia laukoiztu da; eta, urtean oinarri teknologikoko bost enpresa sortzen ditugu, batez beste.

Zientziaren dibulgazioaren arloan, Zientzia Astea bere tamaina bikoiztu arte handitu da, eta Euskadiko gazteen artean STEAM bultzatzeko ekimen nagusia dugu gaur egun. Hala, ekimen horri, Kultura Zientifikoko Katedrari, Udako Ikastaroei eta gure akademikoek hedabideetan etengabe egindako agerraldiei esker, zientziaren dibulgazioa UPV/EHUren nortasunaren ikur bat da gaur-gaurkoz.

Testuinguru ekonomiko benetan zailean gauden arren, hiru zientzia azpiegitura handi jarri ditugu martxan: Micaela Portilla, Martina Casiano eta María Goyri zentroak. Era berean, 2017. urtean inauguratutako Aeronautikako Fabrikazio Aurreratuko Zentroa finkatu dugu. Bertan, 85 enpresa bazkide ditugu, eta I+G+Bko 95 proiektu

garatu ditugu aurtengo lehen sei hilekoan. Horrez gain, Hizketaren Teknologien Zentroa (HITZ) jarri dugu martxan, eta zeregin garrantzitsua beteko du Euskadiko adimen artifizialaren garapenean.

Irakaskuntzaz eta ikerkuntzaz hitz egiterakoan aipatu badut ere, zerbait gehiago esan nahiko nuke orain nazioartekotzeari buruz. Gainera, ikuspegi dialektiko batetik egin nahi dut, Euskal Herriko Unibertsitate gisa bereizten gaituen nortasun kultural eta akademikoari lotuta. XXI. mendeko unibertsitateak identitate eta mestizaje konbinazio bat egituratu behar du, adarren eta erroen konbinazio bat: mundura irekitzea eta kultura batean errotzea. Nire ustez, UPV/EHU, proiektu akademiko gisa, leiala zaio gure logotipoan adierazita dagoen ikuspegi ireki eta emankor horri. Gaur egun, graduoko 841 irakasgai ematen ditugu hizkuntza ez-ofizialetan; horien artetik, 633 ingelesez. Azken lau urteetan, %25etik gora hazi da hizkuntza horretan emandako graduoko nahiz masterreko irakasgaien kopurua. Bestalde, pandemia gorabehera, kanpora joandako ikasleen mugikortasuna %10,5 igo da, eta etorritako ikasleen mugikortasunak, berriz, %6 egin du gora. Hala, gure ikasleen %22k baino gehiagok nazioarteko esperientziaren batean parte hartu dute, eta modu horretan Europako Batasunak 2020. urterako ezarritako %20ko helburua aurreikusitako epea baino askoz lehenago gainditu dugu. Era berean, jarduera handia dugu Graduondokoen Latinoamerikako Sarean, eta Bordeleko Unibertsitatearekin batera ezarritako mugaz gaindiko Euroeskualdeko Campusa sendotu da, joan den ikasturtean UPV/EHUko kideen inplikazioa sekula baino handiagoa izan baitzen.

Nazioartekotzeko ahalegina garatzearekin batera, UPV/EHUK euskara eta euskal kulturarekin duen konpromisoari eusten dio. Nahitaezko irakasgaien %98 euskaraz ematen dira, 2017an baino lau puntu gehiago. Euskaraz emandako berezko tituluen lehengo kopurua halako hiru ematen dira orain, eta %6 egin dute gora gure hizkuntzan garatutako doktorego tesiek. Euskaraz egindako doktorego tesien artean, erdia baino gehiago dira nazioartekoak. Horrek erakusten du, ezer baino hobe, global-lokal binomioa gure identitatearen parte dela: konprometitua euskal kulturarekin eta irekia gainerako kulturetara.

Gizarte politikak Plan Estrategikoaren beste zutabeetako bat izan dira. UPV/EHU ez da definitzen soilik erakusten eta ikertzen duelako, baizik eta ikuspegi integratzaile batetik lan egiten duelako, gizarte beharrei eta kolektibo kaltetuenei erreparatuta.

Atal hori arretaz aztertu nahi dut, ez bakarrik egindako ekintzen zerrenda emateko (eta zerrenda luzea da: III. berdintasun plana; genero indarkerien aurkako protokoloa; komun mistoak; genero ez-binarioaren laukia; Garapen Iraunkorrerako EHU Agenda 2030, Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa), baizik eta lan eskergea hori egitera animatzen gaituen espiritua azpimarratzeko. Izan ere, UPV/EHU inklusio politiken eta feminismoaren erreferente bihurtu da, gure erakundeen testuinguruan.

Unibertsitateak gizartearen beharrei erantzun behar diela esaten dugunean, bakar-bakarrik gizarte eta ekonomia eragileek eskatutako jakintzaren transferentzia beharrei buruz ari garela kontsideratzeko joera murriztailea ematen da. Alabaina, horiek bezain garrantzitsuak dira gizarte izaerako beste behar horiek, eta unibertsitate publikoak indar berberaz erantzuten die. Unibertsitatearen zeregina ez da bakarrik administrazio eta enpresei profesional handiak eskaintzea: unibertsitate publikoak profesional handia izateko aukera ere eskaini behar die gaitasuna duten pertsona guztiei. Gure betebeharra, proiektu akademiko gisa, bi norabidetan lan egitea da: gizarteari zerbitzu bat ematea, eta gaitasuna eta borondatea duten pertsona guztiei goi mailako hezkuntza jasotzeko aukera ematea. Eragile aktibo bat izan behar dugu, bidegabekeriak konponduko dituen eta desberdintasunen aurka borrokatuko dena, ahal duen neurrian.

Bestalde, azpimarratu nahiko nuke gizarte politika bat garatzea eta ekonomia lehiakortasunari erantzutea ez direla helburu kontraesankorrak, osagarriak baizik. Unibertsitate proiektu batean merezi duten pertsona guztiak integratzea eskaera zuzena ez ezik, erronka eraginkor bat ere bada. Hala egin ezean, emateko asko duten pertsona baliogabeak galduko genituzke, gizarte gisa. Eta horrek kostu sozial bat edukiko luke, baita kostu ekonomiko eta produktibo bat ere.

Badakit aipatzen ari naizen hori guztia betetzeko, gure unibertsitatea pertsona konprometituez osatua dagoela: errektoretza

talde hau konpromiso horretan inspiratu da bere zeregina betetzeko. Hori dela eta, gure langileak zaindu nahi izan ditugu, eta haien lan baldintzak hobetu; izan ere, unibertsitatean giza kapitala da kapitalik garrantzitsuen. Pertsona horien alde egitea unibertsitatearen alde egitea da. 2017. urteaz geroztik egindako lan eskaintza publikoetan, 477 plaza finkatu dira ikertzaile-irakasleentzat, eta beste 77, administrazio eta zerbitzu eta langileentzat. Nabarmentzekoa da, 2019an, 635 plazako lan eskaintza publiko bat onartu genuela, UPV/EHU AZPko langileentzat inoiz egindako eskaintzarik handiena.

Balantze honetan, azpiegituren arloan bultzatutako bi ekimen bereziki garrantzitsuak aipatu behar ditut, biak ere Osasun Zientzien arlokoak: Galdakao-Usansoloko ospitalearen atxikipena, elkartu gisa — horrek, gainera Medikuntza gradua osorik euskaraz ematea ahalbidetu du—; eta, Medikuntza eta Erizaintza Fakultaterako eraikin berriaren proiektua, Basurtuko ingurunean.

Unibertsitateko kideez gainera, Euskadin osasunaren arloan diharduten pertsona guztiak jabetzen dira ikasketa horien atzerapenez, azpiegituri dagokienez. Bada, osasun sektorea eta euskal gizarte osoa benetan eskatzen ari ziren egitasmo bat jarri dugu martxan. Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen eraikin berriak 59 milioi euroko inbertsioa izango du. 2024-2025 ikasturtean martxan egotea aurreikusten dugu. Lehentasunezko eta ezinbesteko ekimen bati buruz ari gara. Badakigu eraikin berriak ez dituela konponduko Osasun Zientzien arloan dauden azpiegitura arazo guztiak, baina urrats erraldoi bat egingo dugu, dauden beharrak aintzat hartuta.

Hori guztia egin ahal izan da, gure aurrekontua % 5,6 handitzeaz gainera, 2019-2022 aldirako Unibertsitate Plana sinatu dugulako Eusko Jaurlaritzarekin eta planaren 4 urteko indarraldian 1.350 milioi euroko finantzaketa bat jasotzen delako. Hortik azpimarratu nahiko nuke, batetik, aipatutako eraikina finantzatzeko konpromisoa, eta, bestetik, administrazio eta zerbitzu eta langileen 100 lanposturen finkapena.

Balantze labur honekin amaitze aldera, aipatu nahi dut deialdi gogor eta lehiakor batean 5 milioi euroko babesa lortu dugula ENLIGHTerako, Europako unibertsitateen partzuergo bat, unibertsitate hezkuntzako maila handiko beste zortzi erakunderekin batera sortu

duguna. Hain zuzen, erakunde horien artetik, 6 unibertsitate munduko 400 unibertsitate onenen (munduko %2 unibertsitate onenen) artean daude, gurea bezala, eta hiru, berriz, lehenengo 66ren artean, Shanghaiko sailkapenaren arabera.

ENLIGHTeko bederatzi unibertsitateek hezkuntzari, ikerketari eta berrikuntzari buruzko agenda bat partekatzen dugu, gizarte ongizaterako eta jasangarritasunerako giltzarriak diren bost erronka enblematikoetan oinarritzen dena. Erronka horiek Nazio Batuen garapen jasangarriko 17etatik 10 helbururi (GJH) lotuta daude gutxienez, eta arlo hauetan gauzatuko dira: osasuna eta ongizatea; iraultza digitala eta digitalizazioaren inpaktua; klima aldaketa; energiaren erabilera eta ekonomia zirkularra; eta, amaitzeko, ekitatea.

Orain, nire mintzaldiaren bigarren parteari ekingo diot, garai akademiko eta sozial gogor honi buruzko gogoeta batez.

Orain dela urte erdi eskas ezinezkoa izango litzateke koronabirusaren pandemiak eragin duen gizarte eta ekonomia krisia aurreikustea. Horrek errotik aldatu ditu Euskal Herriko Unibertsitatearen irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa. Halako aldaketa bat, hain bat-batekoa eta sakona, ez da inoiz eman gure unibertsitatearen historian. Horregatik, eta UPV/EHUren erantzuna bikaina izan dela uste dudalako, tartetxo bat hartu nahi dut gertaera honetaz aritzeko.

Halako esperientzia gogor batetik atera beharreko "irakaspenez" hitz egin da azken hilabete hauetan. Ez dakit "irakaspenez" hitza egokiena ote den kasu honetarako. Pandemiak, ordea, gogoetak egiten lagun diezaguke, baita zenbait arazoren gaineko kontzientzia handiagoa hartzen ere, etorkizunean tresna hobezagoz aurre egin diezaiegun. Esperientzia honek agerian utzi du gure gizartea kaltebera dela eta askotariko ekonomia, gizarte eta kultura gertaeren baldintzapean dagoela. Loturen sare konplexu bat osatzen dute horiek guztiek. Elementu bakar baten porrotak sistema osoari eragin diezaioke, eta arriskuan jarri.

Pandemiak, ordea, gure onena ere utzi du agerian. Badakit ideia hori ezbaian dela: esaten da esperientzia honen ondoren ez garela izango pertsona hobek, lehengo miseria handi edo txikiak itzuliko

garela. Ez naiz iritzi horren aldekoa: gure gizartean portaera solidarioak eta lankidetzak ekimenak ematen dira. Eta agertzen dira, bereziki, gauzak zailtzen direnean. Esteban doktoreak adierazi duen moduan, pandemiak elkartasun eta lankidetzak forma zinez miresgarriak erakutsi dizkigu. Eta horrek leku onean uzten ditu pertsona asko, eta baliagarria izan daiteke beste guztiontzat, inspirazio eta adibide gisa. Hala, martxoaren amaieran, Osakidetzaren esku utzi genituen gure giza baliabide eta baliabide material guztiak: bereziki, pandemia batean erabilgarria izan daitekeen material sanitarioa, eta biologia eta diagnostiko teknikan esperientzia zuten langileak.

Dedikazio eta eskuzabaltasun horren adibideak, ordea, asko izan dira, eta arlo askotatik zabaldu dira: irakaskuntza, ikerketa eta dibulgazio zientifikoa.

Konfinamenduan, esfortzu izugarri handia eta eskuzabala egin dute unibertsitateko kide guztiek: ikasleak, irakasle-ikertzaileak, eta administrazio eta zerbitzuetako langileak. Alarma egoeraren deklarazioak hankaz gora jarri zuen 2019-2020 ikasturteko plangintza osoa. Berriro konfiguratu behar izan genituen milaka irakasgai, irakaskuntza emateko moduak, eta euskarri teknikoak.

EHU edonondik plataformak irakaskuntza ez-presentziala emateko oinarriak finkatu zituen. Irakaskuntza modalitate birtualera egokitzeko tresnak doitu eta prestakuntza ikastaroak eman ziren, irakasgaien irakaskuntza gidak ere moldatuta. Irakasleen eta ikasleen erantzuna azkarra eta eraginkorra izan zen. Testuinguru hain zabal eta konplexu batean, izango ziren salbuespenak noski, baina uste dut, oro har, gure unibertsitateak erronka hau gainditu duela. Hain zuzen, ikasleen inkesten arabera, irakaskuntzaren balorazio maila handiari eutsi zaio pandemiaren une gogorretan. Guztia egin zitekeen hobe; errektoretza taldeak ere hobe egin zezakeen, baina unibertsitateko kideen borondatea eta energia nabarmenak izan dira, eta hori guztia jendaurrean aitortu eta eskertu nahi dut. Gure baliabide telematikoen ahalmena garatu dugu, eta, aldi berean, aurrez aurreko hezkuntza baloratzen ikasi dugu, falta zitzaigun honetan. Hona iritsita, eskerrak eman nahi dizkiet Eusko Jaurlaritzari, Hezkuntza sailburu ohinari, Unibertsitate eta Ikerketaren sailburuordeari eta Unibasq-eko zuzendariari, egoera zail honetan gure irakaskuntza egokitzeko eman diguten laguntza handiagatik. Eta Unibertsitateen Ministeriotik emandako laguntza eta babes baliotsua ere eskertu nahi dut.

Eta aukeraz baliatuta, izendatu berri duten sailburua zoriondu nahi dut, eta arrakasta opa diot aurrerantzean egingo duen kudeaketan.

Ikerketak ere eragin negatiboa jasan du, baina UPV/EHUK jakintza sortzeko gaitasuna duela erakutsi du, pandemiaren fenomeno hainbat ikuspegietatik landuta. Besterik gabe, era labur-laburrean, azken hilabete hauetan garatu ditugun ikerketa proiektu askoren artetik, gutxi batzuk aipatuko ditut: konfinamenduaren eragin psikologikoak; birusa detektatzeko test diagnostikoak; pandemiaren eboluzioari buruzko eredu matematikoen garapena; birusaren aurrean ahulagoak diren pertsonen identifikazioa ezaugarri genetikoen bidez; argi ultramorearen erabilera barruko espazioetan birusaren hedapena mugatzeko... Zerrenda ez da xehea, baina agerian uzten du aparteko egoera honi aurre egiteko UPV/EHUK egindako ahalegina, pandemia azterketa zientifiko eta gogoeta intelektualen erdigunean jarrita.

Pandemiak eragina izan du ere unibertsitate jardueraren beste alderdi batean: zientziaren dibulgazioa. Gizartearen eta hedabideen jakin-mina ireki egin da ikuspegi guztietara: osasuna, ekonomia, soziologia, psikologia, etika, historia... Eta erantzunen bila, hedabideek Euskal Herriko Unibertsitatera jo dute. Hala, hedabideetan etengabe agertu dira farmakologoak, mikrobiologoak, psikologoak, medikuak, soziologoak, erizainak, medikuntzaren historiagileak, zientzia dibulгатzaileak, politologoak, juristak, fisioterapeutak, filosofoak... pertsona horiek guztiek, beren espezialitatetik, informazioa eta gakoak eman dituzte orainaldia hobeto bizitzeko, iragana hobeto ulertzeko, eta etorkizuna hobeto prestatzeko.

Pandemiaren aldirik gogorrean, martxoaren 1etik ekainaren 7ra, UPV/EHUKo espezialistek 5.500 aldiz baino gehiagotan parte hartu dute Euskadiko eta Estatuko hedabideetan. Garrantzitsuena, ordea, ez da kopurua: nola zenbatu daiteke unibertsitateak jakintza transmitituz eta ulertzen lagunduz eman duen balio erantsia? Kopuru ekonomikotan zehaztu daiteke? Ezinezkoa da zeregin hori zenbatzea, baina hura gabe, ez erakundeek, ez gizarteak ez zituzten eskuratuko kontzeptu eta orientazio pertsonalak nahiz kolektiboak, gertatzen ari zena hobeto jasateko eta ulertzeko. Gure unibertsitateko hainbat diziplinako bost espezialistek emandako azalpena baliagarria izan da,

gaur ere, azken hilabete hauetan akademiko askok egindako dibulgazio lana ikustarazteko. Ekitaldi honetan parte hartzeko egindako ahalegina eskertzen dizuet, unibertsitateko kide guztiek norabide berean egindako ahalegina sinbolizatzen duelako.

Dibulgazio lan horretan parte hartu duten pertsona asko hemen daude. Errektore gisa, nire aitortza eta esker ona adierazi nahi dizuet lan hori egiteagatik, diziplina akademiko askotatik, baina interes eta bokazio berberarekin. Eta bereziki eskertu nahi dut medikuntzan, erizaintzan eta osasunaren beste diziplina batzuetan diharduten profesionalen lana, pandemia garaian, lehen lerroan egon baitziren. Gaur, haien guztien ordezkari gisa, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko bi irakasle ditugu, profesional bikainak biak ere. Eskerrak, beraz, UPV/EHUkoak diren pertsoneri eta gure ikasgeletan prestatu ziren beste askori, egindako lan eskuzabal eta arriskutsuagatik. Lan horrek balio berezia hartzen du aurten, Erizainen eta Emaginen Nazioarteko Urtea izango baita, Osasunaren Mundu Erakundeak adierazi duenez. *Nursing Now* ekimenean agerian geratu den moduan, lan hori zaintzatik askoz haratago doa eta ez da behar adina baloratu, harik eta egungo pandemiak sortutako krisialdi batean agerian geratu den arte.

Hori guztiaren ondoren, agintaldi gogor baten ondoren, ildo batzuk eman nahi nituzke etorkizunari buruz.

Giza erakundeek ez dute helmuga bat, haientzako ez dago iristeko leku jakin bat. Gu pasatuko gara, baina unibertsitateak bere bidea egiten jarraituko du. Eta erakundeentzako helmugarik ez bada ere, norabide bat badute, balioek eta helburuek zehaztutako norabide bat. Unibertsitatea gidatzen dugun pertsoneri dagokigu bide hori markatzea, eta gure herriaren gizarte eta kultura beharrekin lerrokatzea. Norabide horretan badira printzipio batzuk, argi ezarri behar ditugunak.

Prestakuntza. Eskaintza dinamikoa eta malgua mantendu behar dugu, bai graduan bai graduondokoan, azken horri bereziki erreparatuta, maila akademiko horretan bereizten baitira unibertsitate onak hain onak ez direnetatik. Graduondokoaren aldeko apustua egitean nazioartekotutako unibertsitate baten alde egiten dugu;

unibertsitate bat, talentua bilatzen eta aurkitzen duena, nola bere ingurune hurbilean, hala planetako leku urrunetan.

Eraldatze digitala. Pandemian bizi izandako esperientziak gure irakaskuntza eredia aberastu du, baina berretsi du unibertsitatearen mamia aurrez aurreko hezkuntzaren giza balioan (balio akademikoa ere badena) dagoela. Beharra bertute bihurtu dugu online prestakuntza hobetzeko. Orain, unibertsitate jardueraren alderdi guztietara iritsiko den eraldaketa digital bati ekin behar diogu.

Ikerketa eta transferentzia. Arlo horietan gure unibertsitatea hobetzeaz mintzo garenean, ideia bat heldu zaigu berehala: baliabide publiko gehiago eskatzea. Alabaina, oso garrantzitsua iruditzen zait beste jarrera bat bultzatzea; ez da nahikoa kanpo baliabideak eskatzea: sortu ere sortu behar ditugu. Horrek esan nahi du ikerketarako funts gehiago eskuratu behar direla nazioarteko deialdietan, baita funts gehiago enpresa, erakunde eta elkarteetatik ere.

Nazioartekotzea. Norabide berriak eramaten gaitu ere mundu global batek eskatzen duen irekiera fisiko eta intelektual batera. ENLIGHT unibertsitate aliantza garrantzi handiko urrats bat gehiago da, benetako nazioarteko bokazioa duen euskal unibertsitate bihurtzeko bidean.

Gizarte konpromisoa. Eta konpromiso hori bikoitza da: Garapen Jasangarriaren Helburuak inspiratzen dituzten gizarte balioak, eta euskararen eta euskal kulturaren aldeko apustua.

Diziplina aniztasuna. Diziplina anitzeko ikuspegiak esan nahi du barneratu behar dugula jakintza ez dela multzo isolatuetan garatzen, jakintza arloak etengabeko elkarrizketa emankorrean ari baitira. Dagoeneko ikertalde asko ari dira lanean ikuspegi horretatik. Nire ustez, eta Aristegi doktoreak dagoeneko esan duen moduan, horretan sakontzea da gurea bezalako mundu konplexu batean unibertsitate hobe bat lortzeko gakoa .

Kide izatearen sentimendua. Azken urteetan, UPV/EHUko kideok aurrera egin dugu gure unibertsitatearekiko afekzioan sakontzeko bidean. Euskal Herriko Unibertsitateko kide izatea ez da zerbait neutro edo indiferentea: harro egoteko titulu pertsonal bat da, eta aitorten bat,

kanpoan. Sentimendu hori sakonagoa da orain. Uste dut hedabideek nabaritu dutela arian-arian emandako aldaketa hori. Gure burua zoriondu behar dugu: horrelako sentimenduak urte luzez eginiko lanaren eta izandako konpromisoaren bidez sortutako harrotasun kolektibo baten emaitza dira.

Hedabideak aipatu ditut, eta, aukera honetaz baliatuta, eskerrak eman nahi dizkiet eskaini diguten errespetuzko tratuagatik. Jakintza zabaltzeak, unibertsitate gisa, zeregin horretan laguntzen diguten erakunde eta profesionalen lanarekiko sentikorrago egin behar gaitu. Hedabideen lana ordezkazina da, eta horrela onartu behar dugu unibertsitateak.

Amaitu aurretik eskerrak eman nahi dizkiet nire taldeko kideei lau urte hauetan emandako laguntzagatik (Pedro, Mikel, Patxi, Fernando, Jon, Inma, Jose Luis, Arturo, Araceli, Marta, Agustin, Txelo, Ivan, Idoia eta Lore: eskerrik asko bihotz bihotzez. Eta Gorane, Igor, Javier, Kattalin, Pedro. Gure idazkariak Arantxa, Marian, Maite, Mari Cruz...). Plazer eta ohore handi bat izan da niretzat zuekin guztiekin une gozoak zein garratzak partekatzea. Edonork imajinatu dezaketenez, errektore baten lana zaila da, batzuetan pozgarria izan daiteke, eta beste batzuetan oso desatsegina. Bada, erantzukizun hori lehen eskutik ezagutu ondoren, ziurtatu dezaket egin ahal izan ditudan gauza on asko nire inguruan izan zareten pertsonen lanaren emaitza izan direla, eta hain ona izan ez dena, berriz, nire egoskorkeria pertsonalaren edo nire huts egitearen emaitza. Uste dut, bene-benetan, Euskal Herriko Unibertsitateak hobera egin duela azken urte hauetan, baina nire ekarpena ez dago denboran isolatuta. André Gidek esan zuen moduan, Pedro Miguel Etxenike irakasleari behin entzun nion aipu batean, "Itsasoaren olatu guztien edertasuna aurretik iritsi eta atzera egin zuten horien zorduna da". Gaur egun unibertsitatearen gidaritzan lanean dihardugunok bat gehiago gara olatuen etengabeko segida horretan. Juanjo, zeinaren galeraz egin baitugu negar orain dela gutxi, Pello, Manu, Iñako, Iñaki: unibertsitateak eskertzen du ere zuen ekarpen handia. Eta nik, pertsonalki, haien ondoan lan egiteko eta ikasteko aukera eman zidaten errektoreen eskuzabaltasuna eskertu behar dut: eskerrik asko Iñako, eskerrik asko Iñaki. Erakunde baten arrakastak lan kolektibo baten emaitza dira. Izandako lorpenen meritua lan talde honetan nire ondoan egon diren pertsona askorena da, baita beste

pertsona askorena ere, zeinak beren erantzukizun, zuzendaritza, dekanotza, zerbitzu, irakaskuntza eta ikerketa esparruetatik egindako lanaren bidez gure unibertsitatearen aurrerapenen erantzuleak baitira.

Eskerrak eman nahi dizkiet ere nire ama Rosariori, nire aita Iñakiri, nire ahizpari eta nire anaiari une gogorretan, eta ez dira gutxi izan, emandako maitasun eta babes guztiagatik. Eta Amaia eta Eider alabentzat eta Victor senarrarentzat, berriz, hitzak falta zaizkit, zor diedan, zor dizuedan, guztia argitasunez transmititzeko. Bizitzan izan dudan onena zarete, eta zuen laguntzarik gabe ezingo nuke lan korapilatsu hau inondik ere amaitu. Oso lan gogorra izan da, baina aurrera ateratzen lagundu didazue. Lan gogorra, bai, baina gauza on asko eta irakaspen handiak eramaten ditut nirekin. Eta horiekin batera, bizitza osoan ondoan izango dudan sentimendu bat: UPV/EHUko errektorea izanaren harrotasuna eta, jakina, ohorea.

Amaitzera noa. Eta eskerrak eman nahi dizkiot lehendakariari eta harekin batera euskal erakundeei, gure unibertsitateari emandako laguntzagatik. Erakundeen arteko harremanak, pertsonen artekoak bezala, ez dira sekula perfektuak izaten, baina eraikitzaileak izan behar dute beti. UPV/EHUK gizarteari ematen dion zerbitzuak erakundeen ordaina jasotzen du, baliabide publikoak eskaintzen dizkiolako, baita herritarren ordaina ere, herri honetako familiena, gehienek gure lanean konfiantza dutelako. 2019-2020 ikasturtea gogorra eta zorrotza izan da. Espero dut 2020-2021 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitateak gure gizarteari emandako zerbitzua betetzen jarraitzen duela berrestea, betiko konpromiso berberarekin, baina orain tresna onenekin.

Mila esker guztioi zuen arretagatik eta, ekitaldi akademikoetan esaten dudan moduan, mesedez, ez ahaztu: **Eman Ta Zabal Zazue.**